

II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

ARRATZUA-UBARRUNDIAKO UDALA

Zerbitzuak emateagatiko eta jarduerak egiteagatiko eta hainbat material mailegatzeagatiko prezio publikoak arautzen dituen ordenantza fiskalaren aldaketa puntualaren behin betiko onarpena

Erabaki hori jendaurrean jartzeko epean (ALHAO, 127 zk., 2025eko azaroaren 7koa) erreklamazio bat aurkeztu zen, eta Osoko Bilkurak ebatzi zuen 2025eko abenduaren 23ko ohiko bilkuran.

Durana, 2025eko abenduaren 23a

Alkatea

MARÍA BLANCA ANTÉPARA URIBE

Zerbitzuak emateagatiko eta jarduerak egiteagatiko eta hainbat material mailegatzeagatiko prezio publikoak arautzen dituen ordenantza fiskala

1. artikulua

Arratzua-Ubarrundiako Udalak, Toki Ogasunak arautzen dituen uztailaren 19ko 41/1989 Foru Arauaren 43. artikulua ematen dizkion ahalmenez baliatuz, zerbitzuak emateagatiko edo zuzenbide publikoko araubidean egindako jarduerengatiko prezio publikoak ezartzen ditu, baldin eta zerbitzu edo jarduera horiek ere sektore pribatuak ematen baditu eta administratuek beren borondatez eskatzen badituzte, ordenantza honetan ezarritakoaren arabera.

2. artikulua

Arau hau Arratzua-Ubarrundiako udal barruti osoan ezartzen da.

3. artikulua

Arau honetan araututako prezio publikoak ordaindu behar dituzten zerbitzu edo jardueren onuradun direnek ordainduko dituzte.

4. artikulua

Arau honetan ezarritako prezio publikoen tarifa arauaren eranskinean jasotakoa da.

5. artikulua

Eska daitezkeen zenbatekoak eskatutako edo egindako zerbitzu edo jarduera bakoitzeko ordainduko dira, eta dagozkien epigrafeetan adierazitako zenbatekoetan murriztezinak izango dira, hobariak edo salbuespenak eman ezean.

6. artikulua

Arau honetan aipatzen diren udal-zerbitzuak emateko edo jarduerak egiteko, zerbitzu horiek emateko edo egiteko eskatu beharko zaio aldez aurretik Arratzua-Ubarrundiako Udalari. Zerbitzu edo jarduera horiek, nolana ere, arau honetan araututako prezio publikoak ordaintzeko baldintzapean daudela ulertuko da, eta, prezio publikoa ordaintzen ez bada, zerbitzua ez ematea edo jarduera ez egitea ekarriko du automatikoki.

7. artikulua

Arau honetan araututako prezio publikoak ordaintzeko betebeharra zerbitzua ematen edo jarduera egiten hasten denetik sortzen da.

Hala eta guztiz ere, emandako eta luzatutako zerbitzuak emateko edo jarduerak egiteko bada, ordaintzeko betebeharra kasuan kasuko tarifetan adierazitako egutegiko aldi bakoitzeko lehenengo egunean sortzen da.

8. artikulua

Prezio publikoa honako kasuetan ordainduko da:

- a) Zerbitzuak ematea edo jarduerak egitea, urtean behin, matrikuletan urte naturalen arabera sartuta.
- b) Hiru hilean behin zerbitzuak ematea edo jarduerak egitea. Bi ordainagiri igorriko dira, bata lehen hiru hilekoari dagokiona eta bestea bigarren eta hirugarren hiru hilekoari dagokiona.

c) Espazioen alokairuen kasuan, dagozkien ordainagiriak igorriko dira, egunerokoak, hilekoak, hiruhilekoak edo urtekoak izan.

9. artikulua

Prezio publikoa ordaintzera behartuta dagoenari egotz ezin dakizkiokeen arrazoiengatik jarduera egiten ez bada, dagokion zenbatekoa itzuli beharko da.

Aitzitik, ordaintzera behartuta dagoenak edozein arrazoi dela-eta dagokion jardueran, ikastaroan eta abarretan baja hartzen badu, ez da bidezkoa izango ordaindutako prezioa itzultzea.

10. artikulua

Prezio publiko horiengatik zorrak premiamendu-prozedura administratiboaren bidez eska daitezke.

Eranskina

A. KIROL-INSTALAZIOA ERABILTZEAGATIK PREZIO PUBLIKOA ORDAINTZEA.

Oinarritzko zerrendaren barruan ageri diren erabilera-tipologiak:

- * Derrigorrezko hezkuntzako ikastetxe publiko eta pribatuek gorputz-hezkuntzako eskolak emateko instalazioak.
 - * Guraso-elkarteek eta kirol-erakundeek eskola-kirola garatzeko instalazioak.
 - * Lehiaketarako eta kirol-sustapenerako instalazioak.
 - * Erabiltzaileek zuzendu gabeko jokorako instalazioak.
 - * Kirol-erakundeek beren afiliatuentzat egindako kirol-eskaintzarako instalazioak, edo herritar guztientzat irekitako kirol-ekitaldiak, antolaketa-kaudimena bermatuta dagoenean.
 - * Desgaitasunen bat duten pertsonen elkarteek edo helburu bera duten erakundeek gizarte- edo osasun-alderdi gisa antolatutako jarduera fisiko-aisialdirako instalazioak.
 - * Kirol-federazioetan txertatutako ikastetxe edo elkarteetako prestakuntza-programetarako instalazioak.
 - * Derrigorrezkoak ez diren irakaskuntza arautuko prestakuntza-moduluetarako instalazioak, hezkuntza-erakundeek antolatuak.
 - * Jai tradizionalekin lotutako jarduerak edo ekitaldiak prestatzeko eta/edo eskaintzeko instalazioak.
 - * Jolas-topaketak eta/edo -lehiaketak garatzeko instalazioak. Horietan, erakunde antolatzaileak bere kudeaketa-gaitasuna bermatu beharko du, kirol-sustapeneko proiektu bat (kirol-sustapenaren helburu espezifikoak definituko dira bertan) eta garrantzi soziala justifikatzen duen dokumentu bat aurkeztuta.
- Prezio publikoei buruzko ohar orokorrak.
- * Prezio publikoen ordainketan ez dira sartzen muntaketa-lanak edo aparteko prestaketa-lanak.

* Prezio publikoak ordaintzeak ez du ahalbidetzen publizitatea jartzea edo hirugarrenei sarrerak kobratzea, ezta salmenta-postuak instalatzea ere.

* Prezioetan ez da sartzen kasuan kasuko kirol-materiala, ezta udalaren jabetzako beste edozein material ere.

I. Espazioen erreserbak.

I.1. Kantxa.

	Hezkuntza saila	33.000 euro/urtean
KANTXAREN 1/3	Noizbehinkako erreserba: 12 euro orduko	Denboraldi osoko erreserba: 9 euro orduko
KANTXAREN 2/3	Noizbehinkako erreserba: 15 euro orduko	Denboraldi osoko erreserba: 11 euro orduko
KANTXA OSOA	Noizbehinkako erreserba: 18 euro orduko	Denboraldi osoko erreserba: 12 euro orduko
Erreserba argia barne egiten bada, prezio hauei argiaren erabileragatik honako kopurua gehituko zaio: 3,00 euro orduko		
Horrez gain, erreserba hauei ehuneko 21eko BEZa gehituko zaie.		

I.2 Bestelako aretoak.

ISPILUEN GELA	25,00 euro orduko	Prezio horiek bikoiztu egingo dira, baldin eta erreserben helburua
---------------	-------------------	--

ERABILERA ANITZEKO GELA	25,00 euro orduko	matrikulak edo ikastaroak edo jarduerak egiteagatik prezioak kobratzen dituzten jarduerak egitea bada. Gainera, jarduera atezaintzako ohiko ordutegitik kanpo egin nahi izanez gero, atezaintzaren aparteko orduengatiko kostua gehituko litzateke.
BULEGOAK	15,00 euro orduko	
Erreserba hauei ehuneko 21eko BEZa gehituko zaie		

I.3. Bestelako instalazioak.

GIMNASIOA	Eguneko erabilera: 3,00 euro
	Hilabeteko izen-ematea: 18,00 euro
	Hiru hilabeteko izen ematea: 50,00 euro
	Urtebeteko izen ematea: 180,00 euro
ROKODROMOA	Eguneko erabilera: 2,00 euro
	Hilabeteko izen-ematea: 12,00 euro
	Hiru hilabeteko izen ematea: 30,00 euro
	Urtebeteko izen ematea: 95,00 euro
MATERIALA GORDETZEKO KAIOLAK	Arnesaren mailegua: euro 1,00 eguneko
	50,00 euro denboraldiko. Ez dago eskuragarri beste gelarik materiala uzteko, ez bada tamaina handiko materiala.

II. Instalazioak ekitaldi berezietarako erabiltzea.

II.1. Helburua.

Prozedura honen xedea da erabiltzaileek instalazioak kultura-jardueretarako, aparteko kirol-ikuskizunetarako edo kirolaz kanpoko jardueretarako erabiltzerakoan dituzten eskubideak, betebeharrak eta baldintzak normalizatzea.

Instalazioak eguneroko kirol-jardueraz bestelako jardueretarako erabiltzeko eskubidea izango dute araudi hau betez erabilera horri dagozkion tasak ordaintzen dituzten pertsona fisiko edo juridiko, kirol-elkarte eta bestelako erakunde aitortu guztiek.

II. 2. Ondorengo tipologiaen arabera egindako erreserben prezioak:

* Irabazi-asmorik gabeko kirol-erakundeak, beren egituraren oinarritutako antolamendu-ekarpenik gabe eta/edo ezarritako helburua ez lortzeko arriskuarekin kirol-ekitaldi ireki bat antolatzen dutenak.

* Baliabideak erakartzeko helburu ekonomikoa lortzeko sustatzaile gisa jarduten duten kirol-erakundeak.

* Talde politikoen bilerak, batzarrek edo bilera sindikalak.

* Enpresek herritarrei begira eskainitako jarduerak.

* Beren helburu sozialarekin zerikusirik ez duten kirol-ekitaldiak edo kirol-esparrukoak ez diren jarduerak sustatzen dituzten kirol-erakundeak.

* Alderdi politikoen edo sindikatu-elkarteen mitinak edo kongresuak.

* Gizarte-jarduerak

* Bestelako kirol-, kultura-, hezkuntza-... jarduerak.

- Ordua: 60,00 euro, 100 pertsonara arteko aforoarekin.

- Ordua: 100,00 euro, 101 pertsonatik gorako aforoarekin.

* 550,00 eurotik 3.200,00 eurora arteko fidantza.

(*) Jarduerak dituen ezaugarrien arabera (iraupena, intentsitatea edo arriskua).

II. 3. Aprobetxamendua eta zerbitzu bereziak:

Agertokiak muntatzea eta desmuntatzea, kantxako eta aulkietako babesgarriak jartzea eta kentzea, materiala eramatea eta garraiatzea, garbiketa-lanak egitea (kasu bakoitzari egokituta) eta beste zerbitzu batzuk instalazioko enpresa kontratatzailearen kontura egingo dira.

II. 4. Salbuespenak.

Salbuespen gisa, kultura eta kiroletako zinegotzi delegatuaren ebazpenez, zinegotzi guztiei kontsulta egin ondoren, erreserba berezietarako prezio publiko eta/edo fidantzaren salbuespena eman ahal izango da honako kasu hauetan:

* Dagokion erregistroan inskribatutako eta egoitza soziala Arratzua-Ubarrundiako udalerrian duten irabazi-asmorik gabeko erakundeek eskatutako erreserbak.

* Arratzua-Ubarrundiako udalerrirako eta/edo bertako biztanleentzat gizarte-, kultura- edo kirol-ezaugarri bereziak dituzten ekitaldi edo ekitaldietarako erreserbak

B. LUDOTEKA ZERBITZUA.

Udal ludoteken zerbitzuko bazkide izateko eta zerbitzuaz gozatu ahal izateko, kuota ordaindu behar da. Txandak irailean eskaintzen dira denboraldi bakoitzean, eta hurrengo urteko ekainera arte egongo dira indarrean.

Ludoteka zerbitzua emateko prezio publikoak honako hauek dira:

Urteko bonoa	50,00 euro
--------------	------------

Eguneko sarrera	3,00 euro
-----------------	-----------

Aplikazio-arauak.

Abonuak instalazioak erabili aurretik egingo dira.

Urteko bonua ordaintzeko, ezarritako kuota ordaindu beharko da helburu horretarako erabiliko den udalaren kontu korrontean, zerbitzua erabili aurretik.

Eguneroko sarreraren abonua atezaintzan egingo dira aldeztu aurretik.

Kuota ordaindu ondorengo plazaren eskaeran atzera eginez gero, ez da itzuliko horren zenbatekoa.

Urteko bonua adierazitako epeetan ordaintzen ez badira, umea automatikoki baja emango da ludotekako bazkide gisa.

C. PREZIO PUBLIKOAK: JARDUERAK, TAILERRAK, IKASTAROAK, UDALEKUAK, ETAB.

c.1 Jarduerak eta ikastaroak irailean eskaintzen dira urtero, eta prezioak hurrengo urteko irailera arte egongo dira indarrean.

c.2 Jarduera horietarako eskabideak edo inskripzioak udaletxean egingo dira.

c.3 Prezio arrunterako edo prezio murrizturako eskubidea izateko inskribatu beharreko pertsonari eskatzen zaizkion baldintza guztiak pertsona horrek bete beharko ditu inskripzioa formalizatu aurretik.

c.4 Jardueretarako sarbidea zuzeneko inskripzio bidez egingo da. Plaza kopurua gaindituz gero, zozketa bidez esleitu da.

c.5 Jarduera banku-kontuan sartuta ordainduko da.

c.6 Prezio murriztua ordaindu bada, langileak zentroko bulegoetan justifikatu beharko du zergatik onartzen duen murrizketa hori, izena ematen duenetik bi eguneko epean, eta kasu bakoitzean eskatzen zaion dokumentazioa aurkeztu beharko du. Izapide hori betetzen ez bada, izena emandako plaza izateko eskubidea galduko da, eta udalak ordaindutako zenbatekoa itzuli beharko dio, interesdunak hala eskatu ondoren.

c.7 Urtean zehar antolatzen diren jarduera edo tailer bereziek prezio berezia izango dute, dagokion jardueraren edo tailerraren kostuaren arabera zehaztuko dena.

c.8 Prezio publikoak erantsitako taulan jasotakoak izango dira:

Ohiko jarduerak edo ikastaroak	. Noizbehinkako ikastaroa: 3,00 ordu eguneko . Ikastaro-ordu bakoitzeko: 25,00 euro hiruhileko bakoitza
Jarduera edo ikastaro bereziak	Prezioa ikastaroaren edo jardueraren kostuaren arabera erabakiko da

Udalekuak	. Hamabostaldi bat: 110,00 euro . Hilabete osoa 210,00 euro
Gabonetako umeen jarduerak	66,00 euro
Udaberriko umeen jarduerak	44,00 euro
Gainerako umeen jarduerak	11,00 euro ordua

C.9. Hobariak eta salbuespenak.

1. Hiruhileko iraupena duten bi jarduera edo ikastarotan edo gehiagotan izena ematen duten pertsonen ehuneko 20ko hobaria izango dute ezarritako prezioetan. Hobari hori jarduera guztiei aplikatuko zaie.

2. 18.000,00 eurotik beherako diru-sarrerak justifikatzen dituzten familia-unitateek ehuneko 80ko hobaria izango dute izena ematen duten jarduera edo tailerren prezio publikoan.

3. 18.000,00 eurotik gorako eta 21.000,00 eurotik beherako diru-sarrerak justifikatzen dituzten familia-unitateek ehuneko 50eko hobaria izango dute izena ematen duten jarduera edo tailerren prezio publikoan.

4. Jarduera, ikastaro, udaleku, tailer eta abarretan seme-alaben izena ematen duten familia ugariak ez dituzte hirugarren seme-alabaren eta ondorengoen prezio publikoari dagozkion zenbatekoak ordaindu beharko preziorik txikiena duen jardueran. Salbuespen hori umeek adin-nagusitasuna bete arte aplikatuko da.

Interesatuak hobari eta salbuespen guztiak eskatu beharko dituzte jarduera, ikastaro, tailer edo udalekuetan izena emateko unean, eta udalak ez ditu ofizioz aplikatuko.

2. eta 3. ataletan ezarritako hobariak eskuratzeko, familia-unitatearen diru-sarrerak justifikatu beharko dira, pertsona fisikoaren errentaren gaineko zergaren aitorpena edo, halakorik ezean, T.10 inprimakia edo Lanbidek emandako diru-sarreraren ziurtagiria aurkeztuta.

D. "A" ERANSKINEKO II.4 ATALEAN AIPATUTAKO KONTZEJU, UDAL ETA ERAKUNDEEI AULKIAK, MAHAIK ETA FUTBOLINA MAILEGUAN EMATEA, SOLOGANA ZENTROTIK KANPO ERABILTZEKO.

Hala eskatuta, eta mailegatutako materiala behar bezala itzuliko dela bermatzeko 200 euroko fidantza jarri ondoren, kontzejuei, udalei eta erakundeei (lehen II.4 atalean aipatuak) aulkiak, mahaiak eta futbolina eman ahal izango zaie jai- eta kultura-ekitaldiak eta abar egiteko.

E. MATERIALA MAILEGATZEA SOLOGANA GIZARTE ETXEAREN BARRUAN.

Eskaera egin ondoren, aulkiak, mahaiak, proiektorea eta futbolina alokatu ahal izango dira.

Material hori ezingo da Sologanatik atera. Ondorengo prezioak ezartzen dira:

Aulkiak	Euro 1,00 aulki bakoitza
Mahaiak	10,00 euro mahai bakoitza

Proiektorea	20,00 euro
Futbolina	10,00 euro orduko
Fidantza: 200,00 euroko fidantza jarri beharko da, mailegatutako materiala behar bezala itzultzen dela bermatzeko	

F. UDALAREN KARGA-GUNEETAN ARGINDARRA KARGATZEAGATIKO PREZIO PUBLIKOA

1. artikulua. Helburua

Prezio publikoa ezartzen da ibilgailu elektrikoa kargatu nahi duten erabiltzaileentzat, horretarako prestatutako udalaren karga-guneetan.

2. artikulua. Zerga-egitatea

Zergapeko egitatea elektrizitatea kargatzeko zerbitzua ematea da, hau da, elektrizitatea konektatzea eta kontsumitzea, eta bide publikoa eta beharrezko azpiegitura erabiltzea.

3. artikulua. Subjektu pasiboa eta arduradunak

Ordaintzera behartuta daude udalaren karga-guneetan ibilgailu elektrikoak kargatzeko eskara egin eta zerbitzua erabiltzen duten erabiltzaileak.

Erantzule subsidiarioak ibilgailuen jabeak izango dira.

4. artikulua. Zenbatekoa

Kargaren tarifa honakoa izango da: 0.30€/kWh.

5. artikulua. Sortzapena

Prezio publikoa zerbitzua eskatzeko unean sortzen da.

Azken xedapena

Ordenantza fiskalaren aldaketa hau, behin betiko 2024ko uztailaren 2an onartu zena, ALHAOn argitaratu eta hurrengo egunean sartuko da indarrean, eta berariaz aldatzea edo indargabetzea erabaki arte iraungo du.

Hori guztia orok jakin dezan ematen da argitara, eta jakinarazten da horren aurka administrazioarekiko auzi-errekurtsioa aurkez daitekeela zuzenean Euskal Autonomia Erkidegoko Auzitegi Nagusian, iragarki hau argitaratu eta bi hilabeteko epean.